## IRAGARKIA

**Zallako Udalaren faktura elektronikoa arautzen duen ordenantza**

Zallako Udalbatza Osoak, 2022ko uztailaren 6an eginiko ohiko bilkuran, hasiera batean onetsi du:

Hasiera batean onestea Zallako Udalaren faktura elektronikoa arautzen duen ordenantza.

Faktura elektronikoa Zallako Udalean fakturazioa kudeatzeko prozedura gisa ezartzearen ondorioz, faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legean jasotzen den bezala. Lege horrek eskatzen du toki-erakundeek erregelamenduak egiteko ahala izan dezatela haren irizpideak arautzeko.

Zallako Udalean ez dago ordenantzarik hornitzaileek eta antzeko erakundeek Zallako Udalari fakturatzeko behar diren baldintzak eta baliabideak jasotzen dituenik.

Horregatik guztiagatik, espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean egongo da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan biharamunetik kontatzen hasita, interesatuek epe horretan espedientea aztertu eta arrazoibideak edota iradokizunak aurkezteko erea izan daien.
Epe horren barruan arrazoibiderik edo iradokizunik aurkeztu ezean, goian aitatutako erabagia behin betikotzat hartuko da.

**<u>ZALLAKO UDALEAN FAKTURA ELEKTRONIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA</u>**

**1. artikulua - Esparru objektiboa**

## ANUNCIO

**Aprobación inicial de la Ordenanza reguladora de la factura electrónica del Ayuntamiento de Zalla.**

El Pleno del Ayuntamiento de Zalla en sesión ordinaria celebrada el día 6 de julio de 2022 adoptó el siguiente acuerdo:

Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza reguladora de la factura electrónica del Ayuntamiento de Zalla.

Con motivo de la implantación de la factura electrónica como procedimiento de gestión de facturación en el Ayuntamiento de Zalla, como se recoge en la Ley 25/2013 de 27 de diciembre de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público, la cual, insta a la potestad reglamentaria de las Entidades Locales para regular los criterios de ésta.

Considerando que en el Ayuntamiento de Zalla no existe Ordenanza que haga constar los requisitos y los medios necesarios para facturar al Ayuntamiento de Zalla por parte de sus proveedores y entes análogos.

Por todo ello, se somete el expediente a información pública por el plazo de 30 días hábiles a contar desde el día siguiente a la inserción de este anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», para que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen oportunas. Si transcurrido dicho plazo no se hubiesen presentado reclamaciones o sugerencias, se considerará aprobado definitivamente el acuerdo arriba señalado.

**<u>ORDENANZA REGULADORA DE LA FACTURA ELECTRÓNICA EN EL AYUNTAMIENTO DE ZALLA</u>**

Faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legean xedatutakoa oinarri hartuta, ordenantza honen bidez arautuko da Zallako Udalean faktura elektronikoak aurkeztea.

**2. artikulua- Esparru subjektiboa**

Ordenantza honetan aurreikusitakoa ondasun eta zerbitzuen hornitzaileen eta Zallako Udalaren arteko harreman juridikoen esparruan egindako fakturei aplikatuko zaie.

**3. artikulua- Fakturak erregistroan aurkezteko betebeharra**

Zallako Udalari emandako zerbitzuengatik edo entregatutako ondasunengatik faktura egin duen hornitzaileak, abenduaren 27ko 25/2013 Legean xedatutakoaren ondorioetarako, administrazio-erregistro batean aurkeztu beharko du faktura, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduan, salgaiak benetan entregatzen edo zerbitzuak ematen diren egunetik hogeita hamar eguneko epean. Faktura aurkezteko ordenantza honetan ezarritako denborari eta moduari buruzko betekizunak betetzen ez diren bitartean, ez da ulertuko erregistroan fakturak aurkezteko betebehar hori bete denik.

Faktura elektronikoen kasuan, administrazio-erregistroa faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari dagokio.

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluaren arabera, Administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta daudenek egindako fakturen kasuan, administrazio-erregistroa Zallako Udalaren egoitza elektronikoari dagokio, sac.zalla.eus.

Paperean egindako fakturen kasuan, administrazio-erregistroa Zallako Udalaren sarrera-erregistro orokorrari dagokio: Herritarrentzako Arreta Zerbitzua.

**4. artikulua - Faktura elektronikoa erabiltzea**

Zallako Udalari ondasunak entregatu edo zerbitzua eman dion hornitzaile orok egin ahal izango du faktura elektronikoa.

Nolanahi ere, faktura elektronikoa egin eta sarrera-puntu orokorrean nahitaez aurkeztu

**Artículo 1 – Ámbito objetivo**

En base a lo dispuesto en la Ley 25/2013 de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y la creación del registro contable de facturas del Sector Público, se regula a través de la presente Ordenanza la presentación de facturas electrónicas en el Ayuntamiento de Zalla.

**Artículo 2 – Ámbito subjetivo**

Lo previsto en la presente Ordenanza será de aplicación a las facturas emitidas en el marco de las relaciones jurídicas entre proveedores de bienes y servicios y el Ayuntamiento de Zalla.

**Artículo 3 – Obligación de presentación de facturas en el registro**

El proveedor que haya expedido la factura por los servicios prestados o bienes entregados al Ayuntamiento de Zalla tendrá la obligación, a efectos de lo dispuesto en la Ley 25/2013 de 27 de diciembre, de presentarla ante un registro administrativo en los términos previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o de la prestación de servicios. En tanto no se cumplan los requisitos de tiempo y forma de presentación establecidos en esta Ordenanza no se entenderá cumplida esta obligación de presentación de facturas en el registro.

En el caso de las facturas electrónicas, el registro administrativo corresponde al Punto General de Entrada de Facturas electrónicas.

En el caso de facturas expedidas por los obligados a relacionarse electrónicamente con la Administración del artículo 14.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, el registro administrativo corresponde a la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Zalla sac.zalla.eus.

En el caso de facturas en papel, el registro administrativo es el Registro General de Entrada del Ayuntamiento de Zalla: Servicio de Atención a la Ciudadanía.

**Artículo 4 – Uso de la factura electrónica**

Todos los proveedores que hayan entregado bienes o prestado servicios al Ayuntamiento de Zalla podrán expedir factura electrónica.

En todo caso, estarán obligados a expedir la

beharko dute 25/2015 Legearen 4. artikuluak ezartzen dituen erakundeek:

1. Sozietate anonimoek
2. Erantzukizun mugatuko sozietateek
3. Espainiako nazionalitaterik ez duten pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek
4. Espainiako lurraldean egoitza ez duten erakundeen establezimendu iraunkorrek eta sukurtsalek, zerga-araudiak ezarritakoaren arabera
5. Aldi baterako enpresa-elkarteek
6. Ekonomia-intereseko taldeek, Europako ekonomia intereseko taldeek, pentsio funtsek, arrisku-kapitaleko funtsek, inbertsio funtsek, aktiboak erabiltzeko funtsek, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsek, hipotekak titulizatzeko funtsek edo inbertsioak bermatzeko funtsek.
7. Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluaren arabera Administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta daudenek.

**5. artikulua - Faktura elektronikoa ez erabiltzea**

Emandako erregelamendu-ahalaren arabera, <u>fakturazio elektronikoaren</u> betebeharretik kanpo geratzen dira <u>999,99 euro arteko</u> fakturak, zergak barne. Faktura horiek aurretik aipatutako Zallako Udaleko egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dituzte.

Zenbatekoa gorabehera, <u>pertsona fisikoak ez daude derrigortuta fakturazio elektronikoa</u>

factura electrónica y a su presentación a través del Punto General de Entrada las entidades que establece el artículo 4 de la Ley 25/2015:

1. Sociedades anónimas
2. Sociedades de responsabilidad limitada
3. Personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica que carezcan de nacionalidad española
4. Establecimientos permanentes y sucursales de entidades no residentes en territorio español en los términos que establece la normativa tributaria
5. Uniones temporales de empresas
6. Agrupación de interés económico, Agrupación de interés económico europea, Fondo de Pensiones, Fondo de capital riesgo, Fondo de inversiones, Fondo de utilización de activos, Fondo de regularización del mercado hipotecario, Fondo de titulización hipotecaria o Fondo de garantía de inversiones
7. Los obligados a relacionarse electrónicamente en virtud del artículo 14.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 5 – Exclusión de facturación electrónica**

En virtud de la potestad reglamentaria conferida quedan excluidas de la obligación de <u>facturación electrónica</u> las facturas cuyo importe sea <u>hasta 999,99 euros</u> impuestos incluidos, las cuales podrán ser presentadas en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Zalla por los anteriormente descritos.

<u>Las personas físicas no están obligadas a presentar facturación electrónica</u> ni en el Punto General de Entrada ni en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Zalla, para cualquier importe, pudiendo éstas utilizar los medios indicados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las

aurkeztera, ez sarrera-puntu orokorrean, ez eta Zallako Udalean ere. Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearen 39/2015 Legean azaltzen diren bideak erabil ditzakete: erregistro elektronikoa (sac.zalla.eus), posta bulegoak, Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoak edo bulego kontsularrak, erregistroen arloko laguntza-bulegoak (Herritarren Arreta Zerbitzua) edo erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein.

**6. artikulua - Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra**

Zallako Udaleko faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra FACe plataforma da, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioarena: face.gob.es.

Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bidez aurkezten diren fakturek sarrera automatikoa sortuko dute Zallako udaleko erregistro elektronikoan, eta aurkeztu den data eta ordua egiaztatzen dituen hartu-agiria emango da.

**7. artikulua - DIR3 kodeak**

Udal honetara bideratutako faktura elektronikoek honako DIR3 kodeak izan beharko dituzte:

Kontabilitate-bulegoa: L01480963 Zallako Udala

Kudeaketa-organoa: L01480963 Zallako Udala

Izapidetze-unitatea: L01480963 Zallako Udala

**8. artikulua- Indarrean sartzea**

Ordenantza hau indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direnean.

Administraciones Públicas: registro electrónico (sac.zalla.eus), oficinas de Correos, representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero, oficinas de asistencia en materia de registros (Servicio de Atención a la Ciudadanía) o cualquier otro que reglamentariamente se establezca.

**Artículo 6 – Punto general de Entrada de Facturas Electrónicas**

El Punto General de Entrada de facturas electrónicas del Ayuntamiento de Zalla es la Plataforma FACe, del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas: face.gob.es.

Todas las facturas electrónicas presentadas a través del Punto General de Entrada de facturas electrónicas producirán una entrada automática en el registro electrónico del Ayuntamiento de Zalla, proporcionando un acuse de recibo con acreditación de la fecha y la hora de la presentación.

**Artículo 7 – Códigos DIR3**

Los códigos DIR3 que deben incorporarse a todas las facturas electrónicas dirigidas a este Ayuntamiento son los siguientes:

Oficina contable: L01480963 Ayuntamiento de Zalla

Órgano gestor: L01480963 Ayuntamiento de Zalla

Unidad tramitadora: L01480963 Ayuntamiento de Zalla

**Artículo 8 – Entrada en vigor**

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez cumplidos los requisitos establecidos en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de Bases del Régimen Local.

Digitalki sinatuta-Firmado digitalmente.
Alkatea
Juan Ramon Urkijo Etxeguren
13-07-2022 16:20